

# Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea

Euskararen Erabilera Plana (proposamena)  
2013



ISO 9001  
BUREAU VERITAS  
Certification





Ledesma, 6 – 48001 **BILBO** | Arbidea, 1 – 48004 **BILBO** | Vicente Abreu, 17 – 08001 **GASTEIZ**

tel. 944 242 433

[euskaraplanak@hori-hori.com](mailto:euskaraplanak@hori-hori.com)

[www.hori-hori.com](http://www.hori-hori.com)

## SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua betez, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, HORI HORI, S.A. enpresaren bitartez, *Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa – V. Plangintzaldia (2013-2017)* izeneko txostena prestatu du bere onarpenerako.

Mankomunitateko Udalbatzari dagokio Plan Estrategiko hau onartzea.

Honen bitartez, eta 87/1996 Dekretuak xedatutakoa kontuan hartuta, administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko, gizarte-izaerako eta izaera orokorreko administrazio-atal elebidunak izendatuko dira.

## TESTUINGURU JURIDIKOA

### 1.- ARAUTEGI OROKORRA

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera sustatzeko politikak **Euskararen Erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean** dauka bere hastapeneko erreferentzia.

Herri-aginteei dagokienez, aipatutako legeak xedatzen du herritar guztiek dutela Udalarekin nahi duten hizkuntza ofizialean hartu-emanak izateko eskubidea. Ondorioz, herri-aginteen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo oztoporik gabe betetzen dela berma dadin.

Orobat, 1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari **buruzkoak**, euskal herri-administrazioetako lanpostu-zerrendetan jaso behar diren baldintzak eta betebeharrak ezartzen ditu, euskaraz derrigorrez jakin beharreko lanpostuei dagokienez.

Aipatutako legeetan xedatutakoaren arabera, **1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak**, araubidezko marko orokorra ezartzen du euskal herri-administrazioek euskararen erabileraren normalizazioaren esparruan egin beharreko lanari buruz. Lan horretan bete behar diren gutxieneko baldintzak, plangintzaldiak eta epeak arautzeaz gain, dekretuak bost urtealdirako plan estrategikoak egitea aurreikusten du, hots, Euskararen Erabilera Plana.

**2003ko abenduaren 23an onartutako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuak eta 2008ko uztailaren 1eko Dekretuak, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Hizkuntza-eskubideei buruzkoak**, kontsumitzaile eta erabiltzaileei ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute.

## 2.- URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEAK EUSKARA SUSTATZEKO HARTUTAKO NEURRIAK

Uribe Kostako Mankomunitateak zenbait neurri hartu ditu euskararen normalizazioa sustatzeko. Honakoak:

Mankomunitateak 2004ko maiatzaren 17an onartu zuen ***Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen Euskara Biziberritzeko Lehen Plan Nagusia (2004-2007)***.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) hizkuntzaren normalizazioa eskuratzeko plan estrategikoa da, hizkuntza-politika egiten diharduten herri-egintzei euren jarduna bideratzen laguntzen dien oinarritzko tresna.

EBPNren helburu nagusia honako hau da: euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Hau da, Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.

Mankomunitateak 2009ko urtarrilaren 30ean onartu zuen ***Euskara Biziberritzeko Bigarren Plan Nagusia (2009-2012)***.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuari jarraiki, Mankomunitateak 2007ko irailaren 25ean egindako Osoko Bilkuran IV. Plangintzaldiari zegokion ***Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatearen Euskararen Erabilera Plana (2008-2012)*** onartu zuen.

Oraingo honetan ere, 86/1997 Dekretua oinarri hartuta eta planari bultzada eman nahian, 2013. urtean Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak, HORI HORI, S.A. enpresaren bitartez, ***Uribe Kostako Mankomunitatearen Euskararen Erabilera Plana – V. Plangintzaldia (2013-2017)*** prestatu du.

## V. PLANGINTZALDIAREN OINARRIAK (2013-2017)

### ERAGIN-ESPARRUA

Plan estrategiko honen eragin-esparrua Uribe Kostako Mankomunitatea izango da.

### ERAGIN-EPEA

Euskararen Erabilera Planaren eragin-aldia 2013ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2017ko abenduaren 31n amaituko da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako euskara normalizatzeko prozesuaren V. Plangintzaldia amaitzen den egunean bertan.

### HELBURU NAGUSIA

Administratuari zerbitzua euskaraz, bai ahoz bai idatziz, eskaini ahal izateko jendaurreko, gizarte-izaerako eta izaera orokorreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira, hurrenez hurren.

### METODOLOGIA ETA OINARRIAK

V. Plangintzaldi honetako helburuak lortze aldera, hauek izango ditugu jarraibideak:

- Diagnostiko kuantitatibo eta kualitatibo batetik abiatuko da lana. Betiere, aurreko plangintzaldiko planak oinarri hartutako diagnostik abiatuta.
- Oinarritzat eta gidaritzat hartuko dira Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak.
- Langileen trebakuntza izango da Erabilera Planaren oinarrietako bat, horixe izango baita benetako tresna eta bitartekoa euskararen ezagutza erabilerarekin lotzeko. Beraz, langileen funtzio komunikatiboak eta euskaraz lan egiteko zein zerbitzua euskaraz eskaintzeko indargune eta ahuleziak aztertuko dira banan-banan trebakuntza-egitarau pertsonalizatua garatze aldera.
- Helburuak nola eskuratuko diren zehatuko da, hots, zein estrategia eta baliabide erabiliko den eta zein ekintza-plan jarriko den abian: urtekako Kudeaketa Plana eta Erabilera Planari jarraipena egiteko batzorde-proposamena.

## URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEAREN DERRIGORTASUN-INDIZEA

Aurretik aipatu dugun Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 DEKRETUari jarraiki:

*“Administrazio bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean, derrigorrez bete beharreko indizeak ezarriko du zein den derrigorrezko eskakizunen portzentaia, alegia, lanpostu-kopuru osoa aintzat hartuta, zenbat lanpostuk izan behar duten izendatuta derrigorrezko hizkuntza eskakizuna. Euskal Autonomia Elkarteko biztanleen euskararen ezagutzari buruz Erroldan (...) jasotako informazioa kontuan hartuta finkatuko da derrigorrez bete beharreko indizea (Euskaldunak + (1a Euskaldunak/2).*

*Plangintzaldi bakoitzerako indizea finkatzeko, plangintzaldia hasten denerako indarrean dagoen Erroldan (...) jasotako azken datuak erabiliko dira, beti ere, herri-administrazio bakoitzari dagokion jarduera-esparrua kontuan hartuta.*

*Dekretuaren ezarpen-esparruan dauden erakundeetako bakoitzak dagozkion gutxienerako helburu horiek lortu beharko ditu derrigortasun bete beharreko indizeak ahalbidetzen dion heinean”.*

Gurera ekarrita, Mankomunitateak bete beharreko gutxienerako derrigortasun-indizea % 53,18 da, hau da, lanpostu-zerrendako lanpostuen % 53,18k gutxienez izan behar dute ezarrita derrigortasun-data. Indize hau oinarri hartuta, Uribe Kostako Mankomunitateak bete beharreko gutxienerako helburua honakoa da:

*“Atal-elebidunak ezarri beharko dira jendaurreko, gizarte-izaerako eta izaera orokorreko administrazio-ataletan”.*

## ADMINISTRAZIO-ATALEN SAILKAPENA

Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 16. atalak xedatzen duenaren arabera, honako era honetara sailkatuko dira administrazio-atalak:

*a) Jendaurreko atalak: beren zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuarekiko harremanetan oinarritzen denean.*

*b) Gizarte-mailako atalak: herri-administrazioaren harreman-sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte mailakoak direnean.*

*c) Atal orokorrak: beren zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean.*

*d) Atal bereziak: atal berezizat joko dira bitarteko eta baliabideak eskaintzen dituzten atal zein zerbitzuak.*

Sailkapen orokor hori Uribe Kostara ekarrita eta bertako administrazio-atalen eta lanpostuen eginkizunak kontuan hartuta, atal bakoitzaren izaera honakoa izan beharko luke gure ustetan:

ATALEN IZAERA	ADMINISTRAZIO-ATALAK
Jendurrekoak	-
Gizarte izaerakoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Ingurumen Saila.</li> <li>■ Euskara Saila.</li> <li>■ Ongizatea.</li> </ul>
Atal orokorrak	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Zerbitzu Orokorrak.</li> </ul>
Atal bereziak	-

### ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNAK

86/1997 Dekretuaren 15. atalak xedatzen duenaren arabera, beren zereginak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira administrazio-atal elebidunak. Beraz, aurretik esandakoa betez, Uribe Kostako Mankomunitateko administrazio-atal elebidun izendatuko ditugu ondorengoak:

ADMINISTRAZIO-ATAL ELEBIDUNAK	
Gizarte izaerakoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Ingurumen Saila.</li> <li>■ Euskara Saila.</li> <li>■ Ongizatea.</li> </ul>
Atal orokorrak	<ul style="list-style-type: none"> <li>■ Zerbitzu Orokorrak.</li> </ul>

### EUSKARAREN ERABILERA PLANEKO PARTE-HARTZAILEAK

Gorago aipatu dugu, 86/1997 Dekretuari jarraiki, Uribe Kostako Mankomunitatearen Euskararen Erabilera Planaren helburua honakoa dela: jendurreko, gizarte-izaerako eta izaera orokorreko administrazio-atal elebidunak ezartzea, hurrenez hurren. Beraz, lehentasuna gizarte-izaerako atalek izango dute, eta ondoren, izaera orokorreko atalek. Hau da: Ingurumen Sailak, Euskara Sailak eta Ongizateak, eta Zerbitzu Orokorrak, hurrenez hurren. Hortaz,



V. Plangintzaldiko Erabilera Planeko parte-hartzaileak atal hauetan diharduten langileak izango dira: 12, guztira.

Horrenbestez, eragindako administrazio-atal bakoitzeko langileen funtzio komunikatiboak aztertuko ditugu banan-banan lehentasunezko lanpostuak identifikatu eta horren arabera sailkapena egiteko.

## URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEAREN EUSKARAREN ERABILERA PLANAREN LEHENTASUNEN ARABERAKO KRONOGRAMA

	LEHENTASUN HANDIA			ERTAINA	TXIKIA
	1. urtea	2. urtea	3. urtea	4. urtea	5. urtea
<b>ESPARRUA</b>					
Hizkuntza-gaitasuna	2 EKINTZA			EKINTZA 1	EKINTZA 1
Ahozko komunikazioa	8 EKINTZA			3 EKINTZA	3 EKINTZA
Idatzizko komunikazioa	9 EKINTZA			5 EKINTZA	-
Langileen prestakuntza orokorra	3 EKINTZA			EKINTZA 1	-
Tresna eta aplikazio informatikoak	4 EKINTZA			EKINTZA 1	2 EKINTZA
Internet	4 EKINTZA			-	-
Argitalpenak	4 EKINTZA			-	EKINTZA 1
Hizkuntza-paisaia	5 EKINTZA			-	-
Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak	4 EKINTZA			-	-
Diru-laguntzak	3 EKINTZA			-	-
Kontratazio administratiboak	4 EKINTZA			EKINTZA 1	EKINTZA 1
<b><u>GUZTIRA</u></b>	<b><u>50 EKINTZA</u></b>			<b><u>12 EKINTZA</u></b>	<b><u>8 EKINTZA</u></b>

10

## URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEAREN EUSKARAREN ERABILERA PLANA (EP) 2013-2017 Plan Estrategikoa

<b>ESPARRUA</b>	<b>Hizkuntza-gaitasuna</b>		
	Betetzen ari diren lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten langileen hizkuntza-gaitasuna hobetu, euskaraz ere lan egin ahal izateko eta zerbitzu elebiduna eskaini ahal izateko.		
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>
	Euskaraz lan egin ahal izateko euskara-maila egokia duten eta HE egiaztatu duten langileak	(% 83)	(% 100)
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Prestakuntza</b>	Lana euskaraz egin ahal izateko beharrak eta horien araberrako trebakuntza-aukerak identifikatu (laneko euskararen trebatzeko berariazko moduluak), bitartekoak eta laguntzak sortu eta langileen eskura jarri (hiztegiak, zuzenketak, itzulpenak, ereduak, etab.) eta euskara mantentzeko eta praktikatzeko aukerak identifikatu eta horren araberrako neurriak hartu (mintzapraktika-taldeak, etab.).	
<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>		

<b>Arduradun politikoaren euskararen ezagutza hobetu.</b>		
<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>
Euskaraz lan egiteko maila duten arduradun politikoak	(% 57)	(% 80)
<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu arduradun politikoaren artean, Euskararen Erabilera Planean eta honen ezarpenean parte-hartzeko.	
<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
<b>Laguntza teknikoa eskaini</b>	Hizkuntza-aholkularitza eta idatziak zuzentzeko laguntza eskaini, arduradun politikoek egindako idazkien elebitasuna eta hizkuntza-kalitatea bermatze aldera.	
<b>Lehentasuna</b>	<b>ERTAINA</b>	
<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
<b>Prestakuntza</b>	Taldekako hizkuntza trebakuntza-saioak antolatu, helburua erabilera dela.	
<b>Lehentasuna</b>	<b>TXIKIA</b>	

<b>ESPARRUA</b>	<b>Ahozko komunikazioa</b>		
<b>HELBURUAK</b>	Uribe Kostako Mankomunitatearen ahozko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu.		
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>
	Mankomunitatearen ahozko kanpo-harremanak	( % 40)	(% 80)
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Araugintza</b>	Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak finkatu ahozko komunikazioetarako.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, ahozko komunikazioetarako finkatutako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezagutzera emateko, herritarrek dituzten hizkuntza-eskubideez ohartarazteko eta beste administrazioekin euskarazko harremanak sustatzeko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Laguntza teknikoa eskaini</b>	Ezarritako hizkuntza-irizpideak bete daitezzen beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira eragindako langileen esku. Hots, hizkuntza-aholkularitza eskaini eta harrera-protokoloa zehaztu, ahozko komunikazioen kalitatea bermatzeko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Jarraipena</b>	Zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak ezarri.	

	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Adierazgarriak jarri, herritarrei euskararen erabilera- eskubideak ezagutzera emateko (mahai-gainekoak, etab).	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Euskarazko ikastaro eta ekintzen eskaintza sustatu</b>	Mankomunitateko sail desberdinek antolatzen dituen ekintza eta ikastaroetan euskarazkoen eskaintza sustatu.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Euskara lehenesteko neurriak hartu</b>	Erantzungailu automatikoaren bitartez igorritako mezuetan euskara lehenesteko neurriak hartuko dira. Hau da, lehenengo hitza euskaraz izango da eta erabiltzaileak hizkuntza- aukera aldatu behar izango du mezua gaztelaniaz entzuteko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>Urbe Kostako Mankomunitatearen ahozko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu.</b>		
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>
	Mankomunitatearen ahozko barne-harremanak	(% 20)	(% 70)

	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>		
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, euskara ere lan-hizkuntza izan dadin (langileen arteko harreman formalak, lan-bilerak, etab.).		
	<b>Lehentasuna</b>	<b>ERTAINA</b>		
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>		
	<b>Hizkuntza-kalitatea eta elebitasuna bermatu</b>	Euskaldunek edo euskara ulertzen duten lankideek osatutako bileren inbentarioa egin eta horietan euskaraz eta gaztelaniaz jarduteko aukerak aztertu eta irizpideak landu.		
	<b>Lehentasuna</b>	<b>ERTAINA</b>		
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>		
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, harreman informaletan ere euskarak leku hartzen joan dadin.		
	<b>Lehentasuna</b>	<b>TXIKIA</b>		
	<b>Euskararen Erabilera Planaren eraginpeko langileen ahozko euskararen erabilera gehitu.</b>			
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>	
	Erabilera Planaren eraginpeko langileen ahozko harremanak	(% 20)	(% 70)	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>		
	<b>Prestakuntza</b>	Langile bakoitzaren funtzio komunikatiboak aztertu eta bakoitzaren neurrirako trebakuntza-plana diseinatu eta garatu.		
<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>			
<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>			

	<b>Prestakuntza</b>	Jendurreko lanpostuetan ari diren langileentzako taldekako hobekuntza saioak eskaini.
	<b>Lehentasuna</b>	<b>ERTAINA</b>
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Langile hasiberrien aurkezpenak euskaraz egin (harrera-protokolo elebiduna landu).
	<b>Lehentasuna</b>	<b>TXIKIA</b>
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>
	<b>Prestakuntza</b>	Laneko harreman informaletan euskararen erabilera areagotzeko mintza-saioak sustatu, ezagutza-maila desberdinetako jendea harremanetan jarri eta erabilera bultzatzeko.
	<b>Lehentasuna</b>	<b>TXIKIA</b>



<b>ESPARRUA</b>	<b>Idatzizko komunikazioa</b>		
<b>HELBURUAK</b>	UrIBE Kostako Mankomunitatearen idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.		
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>
	Mankomunitatearen idatzizko kanpo-harremanak	(% 80)	(% 100)
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Araugintza</b>	Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak finkatu idatzizko komunikazioetarako.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, idatzizko komunikazioetarako finkatutako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezagutzera emateko, herritarrek dituzten hizkuntza-eskubideez ohartarazteko eta beste administrazioekin euskarazko harremanak sustatzeko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Laguntza tekniko eskaini</b>	Ezarritako hizkuntza-irizpideak bete daitezzen beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira eragindako langileen esku. Hots, hizkuntza-aholkularitza eta testuen zuzenketa- eta egokitzapen-zerbitzua eskaini, idatzizko komunikazioen kalitatea bermatzeko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	

	<b>Jarraipena</b>	Zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak ezarri.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Eredu ele bien lanketa</b>	Kanpora begirako dokumentu estrategiko orokorrak identifikatu, euskaratu (beharrezkoa denean), moldatu (testu argiak, zuzenak, egokiak eta erakargarriak izan daitezen) eta langileen esku jarri euskarri desberdinetan.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Araugintza</b>	Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak baliatu itzulpen-politika berria sustatzeko eta hau betetzen dela bermatu.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>Uribe Kostako Mankomunitatearen idatzizko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.</b>		
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>
	Mankomunitatearen idatzizko barne-harremanak	(% 80)	(% 100)
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Eredu ele bien lanketa</b>	Barne-erabilerako komunikazioen eremua osatzen duten elementuak identifikatu eta horiek ele bitan edo euskara hutsean egiteko aukerak aztertu, bai komunikazioen alorrean (oharrak, zirkularrak, gutunak, emailak...) baita izaera orokorreko dokumentazioaren alorrean ere (nominak, ofizioak, txostenak...).	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>ERTAINA</b>	

<b>ESTRATEGIA</b>		<b>EKINTZA</b>	
<b>Eredu ele bien lanketa</b>		Bilerekin lotutako elementuak identifikatu (bilera-deiak, aktak...) eta horiek ele bitan edo euskara hutsean egiteko aukerak aztertu.	
<b>Lehentasuna</b>		<b>ERTAINA</b>	
<b>ESTRATEGIA</b>		<b>EKINTZA</b>	
<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>		Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, euskara ere lan-hizkuntza izan dadin (barne-harreman formalak, bilera-deialdiak, txostenak, etab.).	
<b>Lehentasuna</b>		<b>ERTAINA</b>	
Euskararen Erabilera Planaren eraginpeko langileen idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu.			
<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>	
Erabilera Planaren eraginpeko langileen idatzizko-kanpo-harremanak	(% 80)	(% 100)	
<b>ESTRATEGIA</b>		<b>EKINTZA</b>	
<b>Prestakuntza</b>		Langile bakoitzaren funtzio komunikatiboak aztertu eta bakoitzaren neurrirako trebakuntza-plana diseinatu eta garatu.	
<b>Lehentasuna</b>		<b>HANDIA</b>	
<b>ESTRATEGIA</b>		<b>EKINTZA</b>	
<b>Laguntza teknikoa eskaini</b>		Euskaraz lan egin nahi dutenek eta euskaraz lan egin behar dutenek bere lana euskaraz egin ahal izateko baliabideak eskaini: hiztegiak, zuzenketak, itzulpenak, ereduak, softwarea, zalantzak argitzeko bideak, etab.).	
<b>Lehentasuna</b>		<b>HANDIA</b>	
<b>ESTRATEGIA</b>		<b>EKINTZA</b>	

ERABILERA PLANAREN ERAGINPEKO LANGILEEN IDATZIKO BARNE-HARREMANETAN EUSKARAREN ERABILERA GEHITU.	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, idatziko komunikazioetan finkatutako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezagutzera emateko, herritarrek dituzten hizkuntza-eskubideez ohartarazteko eta beste administrazioekin euskarazko harremanak sustatzeko.		
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>		
	<b>Euskararen Erabilera Planaren eraginpeko langileen idatziko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu.</b>			
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>	
	Erabilera Planaren eraginpeko langileen idatziko-barne-harremanak	(% 80)	(% 100)	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>		
	<b>Laguntza teknikoa eskaini</b>	Euskaraz lan egin nahi dutenek eta euskaraz lan egin behar dutenek bere lana euskaraz egin ahal izateko baliabideak eskaini: hiztegiak, zuzenketak, itzulpenak, ereduak, softwarea, zalantzak argitzeko bideak, etab.).		
	<b>Lehentasuna</b>	<b>ERTAINA</b>		
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>		
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Sentsibilizazio eta motibazio kanpainak abian jarri, euskara ere lan-hizkuntza izan dadin (barne- harreman formalak, bilera-deialdiak, txostenak, etab.).		
<b>Lehentasuna</b>	<b>ERTAINA</b>			

<b>ESPARRUA</b>	<b>Langileen prestakuntza orokorra</b>		
<b>HELBURUAK</b>	<b>Langileen prestakuntza orokorrean euskararen erabilera areagotu.</b>		
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>
	Euskararen egoera langileen prestakuntza orokorrean	(% 0)	(% 50)
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Araugintza</b>	Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak finkatu langileen prestakuntza orokorrean.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, Mankomunitateak langileen prestakuntza orokorrari dagokionez ezarri dituen Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezagutzera emateko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Jarraipena</b>	Zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak ezarri.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
<b>Euskarazko ikastaroen eskaintza sustatu</b>	Euskarazko ikastaroen eskaintza sustatu, beti ere kalitatea aintzat hartuta (ikastaroaren edukari berari dagokionean eta baita komunikazio-tresnari dagokionean ere).		

Lehentasuna **ERTAINA**

<b>ESPARRUA</b>	<b>Tresna eta aplikazio informatikoak</b>	
<b>HELBURUAK</b>	Tresna eta aplikazio informatikoetan <b>euskararen erabilera gehitu.</b>	
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>
	Euskararen erabilera tresna eta aplikazio informatikoetan	(% 2)
		Helmuga
		(% 50)
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>
	<b>Araugintza</b>	Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak finkatu tresna eta aplikazio informatikoetan.
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, Mankomunitateak tresna eta aplikazio informatikoei dagokienez ezarri dituen Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezagutzera emateko.
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>
	<b>Laguntza teknikoa eskaini</b>	Ezarritako hizkuntza-irizpideak bete daitezzen beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira eragindako langileen esku. Hots, hizkuntza-aholkularitza eta testuen zuzenketa- eta egokitzapen-zerbitzua eskaini, tresna eta aplikazio informatikoen hizkuntza- kalitatea bermatzeko.
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>
<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
<b>Jarraipena</b>	Zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak ezarri.	
<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	

	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>
	<b>Hizkuntza-kalitatea eta elebitasuna bermatu</b>	Programa berriak eskuratzeko orduan euskarazko bertsioak instalatzeko aukera teknikoak eta behar diren bitartekoak aztertu eta horiek instalatzeko irizpideak zehaztu.
	<b>Lehentasuna</b>	<b>ERTAINA</b>
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>
	<b>Hizkuntza-kalitatea eta elebitasuna bermatu</b>	Egun erabiltzen diren programak aztertu eta ahal direnak pixkanaka-pixkanaka euskarara itzuli.
	<b>Lehentasuna</b>	<b>TXIKIA</b>
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Ele bitan eskuragarri dauden tresna eta aplikazio orokor zein berariazkoen euskarazko bertsioen erabilera sustatu, euskaraz lan egiteko gaitasuna duten langileen artean.
	<b>Lehentasuna</b>	<b>TXIKIA</b>



<b>ESPARRUA</b>	<b>Internet</b>		
<b>HELBURUAK</b>	Web orrietan euskararen presentzia gehitu, komunikagarritasuna zainduta.		
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>
	Euskararen presentzia web orrian	(% 50)	(% 50)
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Araugintza</b>	Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak finkatu web orrirako.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, Internet sarerako ezarri diren Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko irizpideen berri emateko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Laguntza teknikoa eskaini</b>	Ezarritako hizkuntza-irizpideak bete daitezzen beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira eragindako langileen esku. Hots, hizkuntza-aholkularitza eta testuen zuzenketa- eta egokitzapen-zerbitzua eskaini, web orrietan argitaratzen diren komunikazio berrien kalitatea bermatzeko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Jarraipena</b>	Zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak ezarri.	
<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>		

<b>ESPARRUA</b>	<b>Argitalpenak</b>		
<b>HELBURUAK</b>	Argitalpenetan euskararen presentzia gehitu.		
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>
	Euskararen presentzia argitalpenetan	(% 50)	(% 50)
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Araugintza</b>	Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak finkatu argitalpenetarako.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, argitalpenetarako ezarri diren Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko irizpideen berri emateko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Laguntza teknikoa eskaini</b>	Ezarritako hizkuntza-irizpideak bete daitezzen beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira eragindako langileen esku. Hots, hizkuntza-aholkularitza eta testuen zuzenketa- eta egokitzapen-zerbitzua eskaini, sortzen diren argitalpen berrien kalitatea bermatzeko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Jarraipena</b>	Zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak ezarri.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	

	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>
	Hizkuntza-kalitatea eta elebitasuna bermatu	Argitalpenetan erabilitako hizkera argia, zuzena, egokia eta erakargarria izatea sustatu.
	<b>Lehentasuna</b>	<b>TXIKIA</b>

<b>ESPARRUA</b>	<b>Hizkuntza-paisaia (errotulazioa eta noizbehinkako oharrak)</b>		
<b>HELBURUAK</b>	Mankomunitate barruko hizkuntza-paisaian euskararen presentzia gehitu.		
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>
	Euskararen presentzia mankomunitate barruko hizkuntza-paisaian	(% 45)	(% 50)
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Araugintza</b>	Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak finkatu hizkuntza-paisaiaren alorrean.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, hizkuntza-paisaiaren alorrean finkatutako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezagutzera emateko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Laguntza teknikoa eskaini</b>	Ezarritako hizkuntza-irizpideak bete daitezzen beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira eragindako langileen esku. Hots, hizkuntza-aholkularitza eta testuen zuzenketa- eta egokitzapen-zerbitzua eskaini, sortzen diren errotulu edo noizbehinkako ohar berrien kalitatea bermatzeko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	

	<b>Jarraipena</b>	Zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak ezarri.
	<b>Lehentasuna</b>	<b><u>HANDIA</u></b>
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>
	<b>Hizkuntza-kalitatea eta elebitasuna bermatu</b>	Hizkuntza-paisaia aztertu (errotuluak, noizbehinkako oharra, papeleria eta tresneria) eta gabeziak antzeman ondoren, zuzendu, egokitu edo euskaratu.
	<b>Lehentasuna</b>	<b><u>HANDIA</u></b>

<b>ESPARRUA</b>	<b>Iragarkiak, publizitatea eta kanpainak</b>		
<b>HELBURUAK</b>	Iragarki, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia gehitu, komunikagarritasuna zainduta.		
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>
	Euskararen presentzia iragarki, publizitate eta kanpainetan	(% 50)	(% 50)
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Araugintza</b>	Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak finkatu iragarki, publizitate eta kanpainetan.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, iragarki, publizitate eta kanpainen alorrean ezarritako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezagutzera emateko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
<b>Laguntza teknikoa eskaini</b>	Ezarritako hizkuntza-irizpideak bete daitezten beharrezkoak diren bitartekoak jarriko dira eragindako langileen esku. Hots, hizkuntza-aholkularitza eta testuen zuzenketa- eta egokitzapen-zerbitzua eskaini, sortzen diren iragarki, publizitate zein kanpainen hizkuntzaren kalitatea bermatzeko.		
<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>		

	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>
	<b>Jarraipena</b>	Zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak ezarri.
	<b>Lehentasuna</b>	<b><u>HANDIA</u></b>

<b>ESPARRUA</b>	<b>Diru-laguntzak</b>		
<b>HELBURUAK</b>	Diru-laguntzak esleitzerakoan, hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatu.		
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>
	Hizkuntzaren erabilera diru-laguntzak esleitzerakoan	(% 0)	(% 100)
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Araugintza</b>	Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak finkatu diru-laguntzen alorrean.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, diru-laguntzen alorrean finkatutako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezagutzera emateko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Jarraipena</b>	Zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak ezarri.	
<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>		



<b>ESPARRUA</b>	<b>Kontratazio administratiboak</b>		
<b>HELBURUAK</b>	Kontratazioaren fase guztietan hizkuntza-baldintzak betetzen direla bermatu.		
	<b>ADIERAZLEAK</b>	<b>Egoera</b>	<b>Helmuga</b>
	Hizkuntzaren erabilera kontratazioetan	(% 40)	(% 100)
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Araugintza</b>	Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak finkatu kontratazio administrazioetan.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Komunikazioa eta sentsibilizazioa</b>	Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, kontratazioen alorrean finkatutako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak ezagutzera emateko.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Jarraipena</b>	Zehaztutako hizkuntza-irizpideen betetze-mailaren jarraipena egin, eta beharrezkoa balitz, neurri zuzentzaileak ezarri.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
	<b>Hizkuntza-kalitatea eta elebitasuna bermatu</b>	Herritarrekiko harremana oinarri duten kontratazioetan euskarazko baliabideen eta euskal hiztunen presentzia bermatu.	
	<b>Lehentasuna</b>	<b>HANDIA</b>	
	<b>ESTRATEGIA</b>	<b>EKINTZA</b>	
<b>Eredu ele bien lanketa</b>	Kontratazioen alorreko dokumentazio guztia ele bitan egotea bermatu (hizkuntza-kalitate egokiko idazkiak prestatu, langileei ezagutzera eman, etab.).		

	Lehentasuna	<b>ERTAINA</b>
	ESTRATEGIA	<b>EKINTZA</b>
	Komunikazioa eta sentsibilizazioa	Uribe Kostako Mankomunitatean lanean hasiko diren langileentzako harrera-protokolo elebiduna landu.
	Lehentasuna	<b>TXIKIA</b>